

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure zerbitzuak eman ahal izateko sagardotegian zein diskotekan beharko ditugun produktuz ondo hornitu beharko dugu, horretarako, sagardoa guk egitea erabaki dugu, sagarrondoak aurretik ereinda ditugunez handik lortuko genituzke sagarrak eta gero sagardoa egingo genuke kupelera pasatzeko. Haragia eta sagardotegirako gainerako elikagaiak berriz, inguruko hornitzaile batzuetatik lortu beharko genituzke, adibidez: Cárnicas Goya, Dastatzen Group edo Kutixak S.L enpresetatik. Enpresa hauek noski, gure haragiak km0 izatea nahi dugulako aukeratu ditgu, izan ere hirurak Gipuzkoako taldeak dira.



Gainerako elikagaiak eta diskotekarako beharrezkoak izango diren edariei dagokionez Makro banatzailearekin kontaktatu eta handik hornituko ginateke. Enpresa hau aukeratuko genuke ezaguna delako haren zerbitzuaren kalitate ona.

